

# URTE GUZIKO MEZA-BEZPERAK (1949 - 1999)



Joxemari Aranalde

Izenburu luzexka hori, lehenengo euskal-misalaren izena da. Azpiko data horretan ikus daitekeenez, aurten dira berrogeitamar urte argitaratu zela. Urrezko eztaiak ditu, beraz, gure lehen misalak.

Urte honetan bi kontu esango da letretan euskaraz. Gaur asko eta ongi eta ederki ere idazten da gure hizkuntza zaharrean. Politikito irakurtzeko ohitura dugunok ere, ez gara erdia eta laurdena ere irakurtzera iristen, zoritxarrez. Aukera handia daukagu gaur, zorionez. Ia-ia, maukera daukagu.


Apustu egingo nuke hala ere, nahiz eta kontu asko esan letretan euskaraz, ezetz aipamenik egin inork, nik OARSO honetara dakardan misal honetaz, beraren urrezko eztaiak direla-eta.

Idazten duen zenbaitek izenik ere ez du ia jakingo liburu horrenik. Misal hori eskuetan inoiz hartu gabarik ere izan daiteke egungo idazleetan. Liburu arrotz bat dela, alegia, gaurko euskaldunentzat misala.

Alde batera ez da harritzekoa ere. Erlijio gauzek badakigu zer leku daukaten gaurko gizartean. Hori da bat. Eta gero, berriz, misalaren beharrik ez duela gaur elizara bidean dabilenak ere. Hasteko bere hizkuntzan dauzka meza eta elizkizunak, eta ez dauka norberak bere misal beharrik aldare ingurukoaz jabetzeko, "Urte guziko meza-bezperak" argitaratu zenean bezala. Orduan latinez zen den-dena mezetan. Eta norberak bere hizkuntzan nahi bazuen segi meza eta otoitz egin, eskuetan behar zuen bere misala. Gaur ez dago horren beharrik. Orduko zerbitzurik ez dauka, beraz, gaur misalak.

Ez, ez dago purian edo modan "Urte guziko meza-bezperak"; baina izan zuen berea. Eta ez gainera nolana hiko!

Gertakizun literario eta erlijioso handi bat izan zen guretzat misalaren etorrera. Ordura arte amestu ere egin ez genuen bazka bat iritxi zitzaigun guri eliz-liburu horrekin,



bai euskaldun ginenez eta erlijioso ginenez. Egiatzko mana bat izan zen gure euskal-mortuan, mortua ere ez bai zen berriketakoa gure hura.

Sinistu nahi al didazu, irakurle, guk den-dena latinez eta gazteleraz egiten genuela ofizialki nahiz elizan eta nahiz handik kanpo, salbu kurtsuaren bukaeran kantatzen genuen "Agur, Jesusen Ama" kantu ezaguna? Beste planeta bateko kontuak esaten ari naizela badirudike ere, horrelaxe-horrelaxe zen orduko gure egoera.

Egia da, nahi zuenak, jolasorduetan eta hola, herri-kanta zenbait ikas zitzakeela. Irakasle bat iharduten zuen erakusten bere gisara. Baina hori eginbideetatik kanpo gelditzen zen. Inork ez ginduen horretara behartzen.

Gero kantu horiek harat edo hunat txangoren bat genuen-tan kantatzen genituan. Gogoan daukat behin zenbat joaldi egin genuen kantuan Lekeitiotik Ondarrura bidean oinez. Eta beste askotan ere berdin iharduten genuen kantari. Hori zen urte haietan euskarak gure artean zuen presentzi guztia eta bakarra. Haatik esaten dut benetako mana bat izen zela guretzat "Urte guziko meza-bezperak" misala.

Zuk dakizu zer den, irakurle, mezaren unerik berezienean, apaiza bere latinarekin ari den bitartean, zu haren parean eta haren otoitz bera eginez honela hastea, adibidez:

"Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, guk beti ta nonai Zu'ri eskerrak ematea, Jaun Santu, Aita guzialtsu, Jainko betikor, Kristo gure Jaunaren bitartez"? Edo honela: "Zuri, beraz, Aita txit onbera, gure Jaun eta Zure Seme Jesukristoren bidez, eske ta otoi ari gera belauniko..."? Bihotzak bere etxeko tenplea senditzen du eta bere jatorrizko erritmoa eskuratzen. Geuren buruekin eta erlijiosunarekin paketze bezalako bat ekarri zigun guri misalak. Ezagunago bezala ginen, etxekoago, erlijioaren bi alderdiok.

Eta fededunetz gure onetara ekarri baginduen, euskaldunetz zer esan? Bihotzak, sikira, hizketa bat baino gehiago badi-tu, eta bere hura aurkitzen du beti, hala ez bada hola; baina mihiak? Gureak bakarra zuen berea, eta hura berreskuratu genuen misalarekin. Eta nola, gainera! Orixek beste inork gutxik duen herrikerarekin, geure-geurearekin. Bai, izan genuen geure bihotza zerekin goxaturik eta geure burua zerekin harriturik. Hura edertasuna itzulpen haiena!

Koldo Mitxelenak (MIH, 261, ETOR) "Lauda, Sion, Salvatorem" eresiko zati hau dakar eredugarri:


"A sumente non concisus,  
non contractus, non divisus,  
integer accipitur.  
Sumit unus, sumunt mille,  
quantum isti, tantum ille,  
nec sumptus consumitur.  
Sumunt boni, sumunt mali  
sorte tamen inaequali  
vitae vel interitus.  
Mors est malis, vita bonis;  
vide paris sumptionis,  
quam sit dispar exitus".

"Artzen dunak ez puskatzen,  
ebakitzen, ez bereizten,  
osorikan jaten du.  
Batek artu, millek artu,  
millek aiña batek jan du;  
jan ta jan ezin aitu.  
Onak, gaiztoak, bat artzen:  
biek protxu banarekin,  
ari gozo, oni min.  
Bat il ta bestea bizi  
janari bera jan eta  
zer azken banarekin!".

Bai, erreteriarri gusto ona aitortu beharra dago eta Orixeri abilezia ere bai. Hori bezalaxe har zezakeen guk askotan aitutzen dugun beste hau:

"Nec lingua valet dicere  
nec littera exprimere:  
expertus potest credere  
quid sit lesum diligere".

"Ezin esan inork agoz,  
idatziz ere ezin eman;  
gertatu zaionak daki  
Jesus maitatzea zer dan".  
("Urte guziko meza-bezperak", 106).



Besteak beste, itzulpen horretan, delako "expertus" horren ordainetan Orixek ematen duen "gertatu zaionak" hori, ez da alde-aldeko itzulpena. Horrek erakusten duen pasibitate keru hori, zehaztasun eta sakontasun paregabez egina egotez aparte, Orixe mistikoaren asmakizuna da.

Erreteriarriak hura, guk hau eta zuk, irakurle, harako Trinitate eguneko Sagara-aurre hura aukera zenezakeen. Hone-la dio latinez: "Ut in confessione verae, sempiternaeque deitatis, et in personis proprietatis, et in essentia unitatis, et in majestate adoretur aequalitas". Latinez hori eta horrela; eta euskaraz hau eta honela: "Onela, betiko Jainko egizkoa aitortzean, nor-izanean bereiz, zer-izanean bakar, aundi-izanean berdin aitortzen zaitugu" ("Urte guziko meza-bezperak", 645).

Bai, edertasun horiek guztiak gozatu zuten gure euskaltasuna, eta gizendu aldi berean.

Eta Orixe, batasun-kezkatari eta batasungile handia, ez da errenditu euskalki bakar baten barnean misala euskeratzean. "Gipuzko alderago jo dut" badio ere sarrerako "Bi itz" haretan, eta "Meza-liburua ez da euskeraren batasunean sartzen" eransten badu ere leku berean, badu misalak hala-ko batasun moduko bat.

Hemengo batasuna, Orixek inoiz edo behin aldarrikatu zuen haren harira doa. Batasuna, alegia, denok elkarren euskara ikasiarekin egina zegokeela aldarrikatu zuen noiz-pait gure orexarrak. Egia handia! Bai utopia ere, handia! Elkarrena arrotz ez bazaigu ez dagoela batasun gehiagoren beharrik, edozeinek dakien gauza da.

Eta Orixek misalean guztion euskaratik sartzen du zerbait. Inork ez du bere euskalkiz bakarrik idatzia aurkitzen misala, dela norbera Iparraldeko nahiz Hegoaldeko, dela gipuztala bizkaitar. Bai hitzetan eta bai aditzetan, eta bai grammatikan eta bai morfologian ere, euskalki ezberdinetako euskaraz hornitua dago misala. Eta ez gutxi-gutxi ere.

Guretat, textua latinez ezaguna genuenontzat, benetan aberasgarri zen hori. Inolako nekerik gabe sartzen zitzaizgun gure euskalkikoa ez zen hitza edo aditza, aldameneko latinetik argitasunik jaso ezin zuenarentzat zailtasuntxoren bat izan bazezakeen ere. Alderdi on horiek guztiak eta gehiago izan zituen guretat misalak. Nere inguruan ez dut ezagutzen bat bakarrik ere bere euskararen erabileran Orixeri dion zor sakona aitortzen ez duenik. Harek markatua da haren misala gaztetan gure eskuetan erabili genuenon euskara.

Eta ezin dut bukatu "Urte guziko meza-bezperak" misalaren aitamen hau, euskal-itzulpenari Orixek egiten dion sarrera aitatu gabe. "Bi itz" deritza. Hori gauza! Hori prosaren ederra! Idatzi ote da inoiz euskaraz ezer herriko euskararen tankera berdinagoan sarrera hori baino? Nik asko ez dakit, baina nik dakidala ez. Zenbat aldiz irakurri ote genuen nere lagunek eta nik sarrera hori! Inoiz aspertu gabe irakurri ere.

OARSO urtekariari esker, horra aitamen bat egin nik "Urte guziko meza-bezperak" misalaren urtemuga horri.

Milesker, OARSO.